

HIRIGINTZA FITXA. - 13 SO. DEBA IBAIA. LURZORU HIRITARREZINA

1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.

1.1. GARAPENeko PLANEAMENDUA.

Ez da horrelakorik izan. Deba ibaiaren bi ertzei buruzko antolamenduko plan bereziaren aurrerapen bat bakarrik egin zen, zehazki bokaleari buruzkoa.

1.2. UDALAZ GAINDIKO PLANEAMENDUA.

Lurraldearen Antolamendurako Zuzentarauak.
Kosta Legea.
Ubide eta Erreken Lurralde Plan Sektoriala.
Uren Legea.

1.3. HIRI EGITURA.

Lurraldearen egitura organikoa eratzen duen elementua.

1.4. ESPARRUAREN AZALERA. 141.366 m² (errioaren ardatza)

1.5. KOSTA LEGEAREN ERAGINAK.

Babes zorpenaren eraginpeko eraikinek Kosta Legearen Laugarren Xedapen Iragankorrean ezarritakoa bete beharko dute. Babes zorpeneko zonan baimendutako erabilerak Kosta Legeko 24 eta 25. artikuluetan ezarritakora egokituko dira.

2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

- 2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : Hiritarrezina.
2.2. KALIFIKAZIO OROKORRA : Ibai ibilgu eta ubideen zona (11. artikulua: F.3).
2.3. ALDERDIEN MUGAKETA : Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren zedarripenak eta Ubide eta Erreken Lurralde Plan Sektorialak xedatutako mugaketaren araberakoa.

3. PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK.

Errioaren ingurunea (3 HA, 7 SO eta 30 SO) antolatzeko ondu beharko den udalaz gaindiko plan bereziaren zati izango da

3.1. KALIFIKAZIO XEHEKATUA.

Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa.....Sistema orokorra (Hirigintza Araudiaren 117. artikulua eta Kosta Legearen 20. artikulua).
Igarotze zorpeneko zona (6 m)..... oinezkoak eta ibilgailuentzako bideak (Kosta Legearen 27. artikulua)
Babes zorpeneko zona (20 m lurzoru hiritarrean)
100 m lurzoru hiritargarrarian)..... Hirigintza Araudiaren 118. artikuluari eta Kosta Legearen 20. artikuluari jarraiki
Eragin zona..... Hirigintza Araudiaren 119. artikuluari eta Kosta Legearen 30. artikuluari jarraiki.

3.2. ORDENANTZA XEHEKATUAK.

Kosta Legearen arabera.
Ubide eta Erreken Lurralde Plan Sektorialaren arabera.

3.3. PROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZAK.

Probetxamendua. Ez da hirigintza probetxamendurik baimenduko.
Eraikuntza. Kosta Legeak aurreikusitakoak bakarrik.
Jabaria. Publikoa (Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa).
Erabilera orokorra. Ibai ibilguaren ohiko erabilera.

Erabilera baimenduak.

- Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko zona. Ohiko erabilerak: paseatzea, bainua hartzea, nabigatzea, ontziratzea, arrantzan aritzea... (Kosta Legearen 3.1.1 artikulua).
 Beren ezaugarriengatik beste inon ezar ez daitezkeen erabilera publikoak (Kosta Legearen 32.1 artikulua).
 Atrakatze eta lehorreratze puntuak.
- Igarotze zorpeneko zona Oinezkoen eta zaintza eta salbamenduko ibilgailuen pasabide publikoa.
- Babes zorpeneko zona: Laboreak eta sailak (Kosta Legearen 24. artikulua).
 Itsas pasealekuak (Kosta Legearen 27. artikulua).
 Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa erabiltzeko beharrezko zerbitzuak (Kosta Legearen 25. artikulua).
 Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa babesteko lubetak, lurbetetzeak eta mozketak (Kosta Legearen 25. artikulua).
 Itxitura opakoak 1 m arte (Kosta Legearen 44. artikulua).
 Instalazio desmontagarriekiko kanpalekuak (Kosta Legearen 45. artikulua).
 Agregakinen probetxamendua hondartzetarako (Kosta Legearen 45. artikulua).

Erabilera debekatuak:

- Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko zona. Beren ezaugarriengatik beste inon ezar daitezkeen erabilerak.
 Publizitaterako kartelak edo panelak.
- Igarotze zorpeneko zona: Zirkulazio librea eragozten duen edozein erabilera.
- Babes zorpeneko zona: Egoitzak edo logelak hartuko dituzten eraikinak (Kosta Legearen 25. artikulua).
 Hiriarteko garraiobideak eraiki edo aldatzea (Kosta Legearen 25. artikulua).
 Agregakinen hobiak suntsitzeko jarduerak (Kosta Legearen 25. artikulua).
 Goi tentsioko airetiko lineak (Kosta Legearen 25. artikulua).
 Hondakin solidoak, obra hondakinak eta araztu gabeko hondakin urak isurtzea (Kosta Legearen 25. artikulua).
 Publizitaterako kartelak edo panelak (Kosta Legearen 25. artikulua).
 Beren ezaugarriengatik babes zorpeneko zonatik at ezar daitezkeen erabilera guztiak, aire zabaleko kirol instalazioak izan ezik (Kosta Legearen 25.2 artikulua)

3.4. EKIPAMENDU ETA HIRITARTZE BALDINTZAK.

Kosta Legearen eta Ubide eta Erreken Lurralde Plan Sektorialaren arabera.

3.5. PLANEAMENDU ETA KUDEAKETA BALDINTZAK.

Erakunde eskudunaren arabera.